

UDALBATZARRAK 2011ko URTARRILAREN 25ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2011ko urtarrilaren 25ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Roteta Elola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Roteta Elola

ZINEGOTZIAK :

Aitor Eizmendi Garro
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Juan Ignacio Umerez Urrezola
Jose Ramon Hernandez Cristóbal
Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - **2010ko abenduaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
 - **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
 - **Fakturak eta ordainketak.**
 - **Santiago Ermita bideko, 2-esk.-an atarian baldosa jartzeko baimena eskaera, E.L.**
 - **2010-2011 ikasturterako kultura, musika, kirola eta euskararen inguruko jarduerak burutzeko dirulaguntzak esleitzea.**
 - **Beste batzuk.**
 - **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2010eko abenduaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen den Alkatetza Ebazpena eman dela adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

46/2010 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 29ekoa, Udal langileen produktubidadeko konplementoa onestea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- ENEKO ITURBE	3.429,90€
- GOPAR	2.841,62€
- ARGITU ASESORES	145,14€
- FONTANERIA ANTZIETA	277,96€
- IZADI LABORATEGIA	138,06€
- REPSOL	436,46€
- VODAFONE	170,05€
- IBERDROLA	292,85€
-IBERDROLA	483,74€
-IBERDROLA	133,33€
-IBERDROLA	119,27€
-OSTATU JATETXEA	230,00€
-SASURLA, S.L.	348,02€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.046,40** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA
SANTIAGO ERMITA BIDEKO, 2-ESK. -ko ETXEBIZITZAKO ATARIAN BALDOSA JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, E.L.

Ikusirik,E.L. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Santiago Ermita bidea 2 eskubiko etxebizitzako atarian baldosa jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: E.L. Jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Santiago Ermita bidea 2 eskubiko etxebizitzako atarian baldosa jartzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

2010-2011 IKASTURTERAKO KULTURA, MUSIKA, KIROLA ETA EUSKARAREN INGURUKO JARDUERAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ESLEITZEA

Ikusirik Alkizako Udalak herritarrei 2010 eta 2011 ikasturtean Kultura, Kirola, Musika eta Euskararen inguruko jarduerak burutzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak onartu eta argitaratu zituela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abenduaren 7an argitaratu zelarik.

Ikusirik deialdiaren seigarren onarriak arauturikoari jarraituz abenduaren 31ra bitarteko epea zabaldu zela interesdunek eskaerak aurkeztu zituzten.

Ikusirik behean aipatzen diren eskatzaileek deialdiko 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela ondorengo dirulaguntza kopuruak esleitzea proposzen direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA	KOSTUA	DIRULAGUNTZA
A. L. I.	Musika	647,00 €	323,50€
M. S. G.	Kirola	111,60 €	55,80€
M. S. G.	Kirola	111,60 €	55,80€
M.O. A.	Musika	736,00 €	368,00€
A. U.	Kultura	585,42 €	292,71€
M. U.	Musika	675,00 €	337,50€
A.R.	Kirola	79,62 €	39,81€
L. R.	Kirola	79,62 €	39,81€
F.M. T.	Euskara	585,00 €	292,50€
A. A.	Kirola	76,56 €	38,28€
I. A.	Kirola	76,56 €	38,28€
N. I.	Kirola	163,95 €	81,97€
A. I.	Kirola	163,95 €	81,97€
GUZTIRA		4.091,88 €	2.045,93 €

Gaia aztertutik bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Ondorengo dirulaguntza esleipena onartzea eta dagokion ordainketa egitea.

IZEN ABIZENAK	JARDUERA	KOSTUA	DIRULAGUNTZA
A. L. I.	Musika	647,00 €	323,50€
M. S. G.	Kirola	111,60 €	55,80€
M. S. G.	Kirola	111,60 €	55,80€
M.O. A.	Musika	736,00 €	368,00€
A. U.	Kultura	585,42 €	292,71€
M. U.	Musika	675,00 €	337,50€
A.R.	Kirola	79,62 €	39,81€
L. R.	Kirola	79,62 €	39,81€
F.M. T.	Euskara	585,00 €	292,50€
A. A.	Kirola	76,56 €	38,28€
I. A.	Kirola	76,56 €	38,28€
N. I.	Kirola	163,95 €	81,97€
A. I.	Kirola	163,95 €	81,97€
GUZTIRA		4.091,88 €	2.045,93 €

BIGARRENA.- Esleitutako dirulaguntzen ordainketa deialdiaren 8. oinarriaren arabera egitea, hau da, % 50 esleipenarekin eta % 50 dirulaguntzaren xede diren ekintza, egitasmo eta helburuak bete direla justifikatzen denean, gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko direlarik.

HIRUGARRENA: 2011 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

LAUGARRENA: Akordio honen berri interesdunei ematea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

6.1.ALKIZAKO ETXAUN-BEKOA BASERRIKO B EDO EZKER ALDEKO ETXEBIZITZARI, LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik L.G.A. andreak Alkizako Etxaun-Bekoa baserriko B edo Ezker aldeko eraberritutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena emateko eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, elektrizitate eta gas ziurtagiriak eta dagokion eskritura aurkeztu dituela.

Gaia azterturik, bertaratuak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako Etxaun-Bekoa baserriko eraberritu den B edo ezker aldeko etxebizitzari, lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri L.G.A. andreari ematea.

6.2.ALKIZAKO BASERRIETAKO ETA ETXEETAKO BIDE ETA ETXE ATARIEI BURUZKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Alkizan baserrietako eta etxeetako bide eta etxe atariak hormigonatzeko Udalaren laguntza eman zela, bai hormigoia botaz, bai Udal langileen eskulana hauen eskura jarriaz. Laguntza hauen truke bide eta atarien erabilpena, publikoa izango zela azalduaz.

Ikusirik idatziz ez dagoela ezer jasorik.

Gaia azterturik, bertaratuak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Alkizako baserrietako eta etxeetako bide eta etxe atariak hormigonatzeko laguntza edo Udal langileen eskulana jaso zutenek, Alkizako Udalaren laguntza gisa, hauen erabilpena publikoa izango da, nahiz eta jabetza pribatua izaten jarraitzen duten.

6.3.ADUNAKO UDALAK, ALKIZAKO UDALAK, LARRAULGO UDALAK, ASTEASUKO UDALAK, VILLABONAKO UDALAK, ZIZURKILGO UDALAK ETA AIZTONDO KLASIKO BATZORDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, AIZTONDO ESKUALDEAN AFIZIONATU MAILAKO GOI MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA ELKAR LANEAN ANTOLATZEKO, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasiko batzordeak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasukoko Udalak, Villabonako Udalak eta Zizurkilgo Udalak onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak, Zizurkilgo Udalak eta Aiztondo Klasiko batzordearen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Jon Roteta Elola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ondoren Jon Umerez udal honetako zinegotziak, honako proposizioa egiten du Alkizako Udaleko udal batzak eztabaida eta onar dezan.

“Azken hilabeteotan Tolosako anbulatorioko hainbat espezialitate-zerbitzuen kontsultak bertan egiterari utzi dio Osakidetzak eta Nuestra Señora de la Asunción klinika bidez ematen hasi da. Hori gertatu da, gutxien gutxienik oftalmologiako, urologiako eta digestiboko kontsultekin. Horrek, anbulatorioaren espezialitate kontsulten etorkizunari buruzko kezka sortu du bai bertako langileen artean eta baita herritarren artean ere. Itxura batean, 2011ko otsailetik aurrera Osakidetzak espezialitate-kontsulta guztiak aipatu klinika pribatuaren bidez egin nahi ditu. Horren ondorioz, osasun-sistema publikoa kaltetuta eta ahulduta geldituko da Tolosan eta Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeko osasun-sare publikoak hutsune nabarmen bat du eskualde-ospitallerik ez dagoelako bertan. Gure eskualdean indar eta pisu demografiko nahikoa izan dezake eskualde-ospitale bat izateko, horrela, osasun-sistema publikoaren eskaintza osatzeko eta herritarrak egokiago zerbitzatzeko.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkeztu du, Alkizako Udalaren osoko bilkurak ondorengoa

ONAR DEZAN:

1. Alkizako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari Tolosako Anbulatorioari eta Tolosaldeko osasun-zerbitzuei buruz dituen asmoak azal diezazkiola eskatzea eperik motzenez

2. Tolosaldeko udalek aldarrikatzen dute, orain artean Tolosaldeko atentzio osoa, lehen arretako zein espezialitatea, eskaini den era berean jarraitzea aurrera begira mozio honetako 3. atala gauzatu artean

3. Alkizako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari eska diezaiola egin dezala azterketa sakona Tolosaldean eskualde-ospitale bat ezartzearen beharraz eta komenientziaz, beti ere, herritarren ongizatearen ikuspegitik eta kontsidera dezala eskualde-ospitale hori azpiegitura pribatu baten publikazioa baliatuz

ezarri ote daitekeen.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Jon Umerez zinegotziak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onestea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.